


LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGOERA, IRITZIAK ETA BEHARRAK, 2016



AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. METODOLOGIA OHARRAK	4
2. ONDORIO NAGUSIAK	6
3. EMAITZAK	10
3.1. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK	11
3.2. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGOERA FISIKOA	14
3.2.1. EGOERA FISIKOAK ERAGINDAKO MUGEN ETA HORIEK GAINDITZEKO JASOTAKO LAGUNTZAREN LABURPENA	14
3.2.2. EGUNEROKO AKTIBITATEA ZENBATERAINO MUGATZEN DIEN EGOERA FISIKOAK ETA MUGATZEN DIEN KASUETAN LAGUNTZARIK BA OTE DUTEN	15
3.2.3. LEGUTIOKO ADINEKO HERRITARREN MULTZOKATZEA BERE EGOERA FISIKOAK SORTZEN DIZKIEN MUGEN ARABERA	19
3.2.4. EGUNEROKO AKTIBITATE GUZTIETARAKO MUGAK DITUZTEN HERRITARRAK, ALDAGAI EZBERDINEN ARABERA (SEXUA, ADINA, ETXEKO KIDEAK, EGOERA ZIBILA ETA EGOERA EKONOMIKOA)	20
3.2.5. EGOERA FISIKOAREN BALORAZIO SUBJEKTIBOA	23
3.2.6. BOTIKA EDO MEDIKAMENTUAK KONTSUMITZEKO JOERA LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO PERTSONEN ARTEAN	24
3.2.7. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN ELIKADURA	25
3.3. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGUNGO ETXEBIZITZA, ETXEKIDEAK ETA ZIRKULU SOZIO-AFEKTIBOA	26
3.3.1. GAUR EGUN ETXEAN BIZI DIREN PERTSONEN INGURUAN	26
3.3.2. ETXEAN BAKARRIK BIZI DIREN 55 URTETIK GORAKO HERRITARRAK, HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA (SEXUA, ADINA, AUZOA, EGOERA ZIBILA ETA EGOERA EKONOMIKOA)	28
3.3.3. JENDE GEHIAGOREKIN ERLAZIONATZEKO OHITURAREN INGURUAN	31
3.3.4. GAUR EGUN BIZI DEN ETXEBIZITZA	33
3.4. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN AISIA ETA DENBORA LIBREA	34
3.4.1. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGUNEROKO AKTIBITATE MAILA	34
3.4.2. DENBORA LIBREAREKIN DUTEN ASEBETETZE MAILA, ALDAGAI EZBERDINEN ARABERA (SEXUA, ADINA, BIZITOKIA, NOREKIN BIZI DEN ETA EGOERA EKONOMIKOA)	36
3.4.3. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREK EGIN EZIN DITUZTEN AKTIBITATEAK ETA HORREN ZERGATIA	39

3.5. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREI ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZUAK: EZAGUTZA, ERABILERA, MAIZTASUNA ETA BALORAZIOA -----	41
3.5.1.LEGUTIOKO UDALAREN ZERBITZUAK ADINEKO HERRITARRENTZAKO, LABURPENA ----	41
3.5.2.ZERBITZUAK JASOTZEKO ZAILTASUNIK BA OTE DUTEN -----	42
3.5.3.OROKORREAN, ADINEKO HERRITARRENTZAKO LEGUTIOKO UDALAREN ZERBITZUEN BALORAZIOA-----	43
3.5.4.ZERBITZUEN INGURUKO ESKARIAK-----	44

I. ERANSKINA: GALDERA SORTAK-----	45
--	-----------

II. ERANSKINA: INKESTATUEN EKARPENAK -----	62
---	-----------

0. SARRERA

Legutioko Udalaren eskariz egindako ikerketaren emaitzak aurkezten ditugu ondorengo orriotan. Zehazki, udalerri honetan bizi diren **55 urte edo gehiagoko herritarren egoera eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko balorazioak eta pertzepzioak** aztertzeko egindako ikerketa da.

Aztiker Soziologia Ikerguneari eskatutako ikerketa honek aurrez-aurre egindako inkesta baten datuak ditu oinarri. Galdetegia 2016ko abenduaren 12 eta 23 bitartean burutu da.

1. METODOLOGIA OHARRAK

LEGUTIOKO 55 URTE EDO GEHIAGOKO HERRITARRAK. XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA)

Unibertsoa: 2016. urteko udal erroldan agertzen diren Legutioko 55 urte edo gehiagoko herritar guztiak. Guztira: **529**

Inkesta erantzun duen herritar kopurua: 181

Erantzun tasa: % 34,2

Landa lana: 2016ko abenduaren 12 eta 23 bitartean. Inkestak aurrez-aurre burutu dira, euskaraz ala gaztelaniaz, inkestatuak nahi izan duen hizkuntzan.

ERABILITAKO TEKNIKA: AURREZ-AURREKO INKESTAK

Ikerketaren helburua Legutioko adineko herritarren iritzi, pertzepzio eta proposamenak jasotzea izanik, inkesta izan da informazioa biltzeko erabili dugun teknika. Zehazki, aurrez-aurreko elkarrizketa egituratuak egin ditugu.

Inkesta gehienak galdekatuen etxeetan burutu dira eta beste batzuk Legutioko Jubilatuen Klubean, eta denak inkestatzaileek beraiek bete dituzte. Euskaraz zein gaztelaniaz egin dira inkestak, galdekatuaren nahiaren arabera, eta orokorrean 20-25 minutu bitartean behar izan dira betetzeko.

UNIBERTSOA

Unibertsoa osatzen dute 55 urte edo gehiago dituzten legutioarrek. Udalak emandako erroldan oinarritu gara.

DENAK INKESTATZEKO SAIAKERA

Egindako bisiten emaitza		
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Kontaktatu eta inkesta bete du	181	34,2
Kontaktatu baina ez du inkesta bete nahi izan	171	32,3
Ez da kontaktatzea lortu (gutxienez 3 saiakera eginda)	177	33,5
Guztira	529	100,0

Aztikerrek protokolo zehatz bat jarraitu du ahalik eta herritar gehien erantzunak jasotzeko. Esan bezala, erroldan agertzen ziren 55 urte edo gehiagoko guztiei inkesta egitea izan da helburua.

Inkestatzaileek gutxienez hiru saiakera egin dituzte etxebizitza bakoitzean (batzuetan lau eta bost ere bai), egun eta ordu ezberdinetan, bilatutako herritarra topatzeko. Pertsona hori ez bada aurkitu edota inkesta erantzun nahi izan ez badu, ez da beste inorengatik ordezkaturik izan. Azken batean, unibertso osoa inkestatzen saiatu gara, ez da laginik atera eta emaitzak bete diren inkestekin osatu dira.

Goiko taula begiratzuz gero, azpimarratzekoa da kontaktatzea lortu ez den herritarren kopurua (177 pertsona, kolektiboaren % 33,5). Dirudienez, herritar askok bigarren etxebizitza bezala edo asteburuak bertan pasatzeko etxebizitza bezala erabiltzen du Legutioko bere etxea, nahiz eta, udalerrian bertan erroldatuta egon. Aztertu beharko da fenomeno hori ohikoa den edota bestelako arrazoiren bat ere badagoen honen atzean.

Adin-tarteen arabera, gehien kontaktatzea lortu direnak 75 urtetik gorakoak dira (% 74,1). 65 eta 74 urte bitartekoak bigarren (% 69,8) eta 55 eta 64 urte bitartekoak gutxien (% 60,1). Sexuaren arabera aldiz, emakumezkoen % 68,5arekin kontaktatzea lortu da eta gizonezkoen % 65,1arekin. Beraz, unibertsoa zein den eta inkesta erantzun dutenak zein diren ikusita, erantzunetan nolabaiteko pixu handiagoa dute emakumezkoek eta herritar zaharrenek.

INKESTA BETETZEKO GAI EZ DIREN PERTSONAK

Kontutan hartu dugu 55 urte edo gehiago herritarren artean, adin delikatuia izanda, arazoak egon zitezkeela pertsona batzuekin inkesta ulertu eta betetzerako garaian. Kasu hauek eman direnean, inkesta betetzeko laguntza eskatu zaio pertsona horren laguntzaileari edota bere ardura duenari. Inkestatuen % 3ak laguntza behar izan du.

2. ONDORIO NAGUSIAK

Aztertutako datuen harira, ondorengo orriotan azalduko ditugu atalez atal ikerketa honek utzi dizkigun ondorio nagusiak.

❖ LEGUTIOKO 55 URTE EDO GEHIAGOKO HERRITARREN EGOERA FISIKOA

55 urte edo gehiagoko legutioarren bi herenek (% 66,3) dio ez duela muga fisikorik nabari egunerokoan egiten dituen aktibitateetan. Jendarteko kolektibo honen beste ia hamarretik hiruk (% 28,7) muga fisikoak ditu soilik aktibitate batzuk egiterako orduan eta gainerako % 5,0k adierazi du bere egoera fisikoak eguneroko ekintza guztiak zailtzen dizkiola. Azken multzo honetan, bereziki nabarmentzen den perfila 75 urtetik gorako emakumezkoarena da. Zahartzarora emakume gehiago iristen direnez, datu hau logikoa da. Azkenik, etxeko kide kopuruaren arabera, ekintza guztietarako muga fisikoak dituzten herritarren bi heren (% 66,6) jende gehiagorekin bizi da etxean eta ondorioztatu daiteke laguntza eskuragarriago izan dezaketela. Gertuagotik jarraitu beharko da bakarrik bizi eta egunerokoan etengabe muga fisikoak dituztenen kasua.

Gehien aipatu diren mugak esfortzu fisikoarekin lotutako aktibitateekin erlazionatuta daude. Mahai bat mugitzerako orduan inkestatuen ia laurdenak (% 22,2) muga fisikoak dituela adierazi du, eskailerak igotzerako orduan % 21,7k eta eguneroko aktibitateak burutzeak (erosketak, medikuarenera joatea, etab,...) % 17,3.

Muga fisiko hauek dituzten herritarren gehiengoak laguntzaren bat jasotzen du ekintza hori egin ahal izateko. Laguntza mota ezberdinak jasotzen dituzte adineko legutioarrek. Laguntza boluntarioa (familia-kide batena esaterako) ematea da ohikoena. Bestalde, laguntza hori emateko pertsona bat ordaintzea ere etxe askotan egiten den hautua da. Bukatzeko, laguntza tekniko edo mekanikoa da hirugarren alternatiba posiblea, nahiz eta, ez dagoen hain hedatuta. Halere, herritar asko daude aktibitate askotan inolako laguntzarik jasotzen ez dutenak. Eskailerak igotzerakoan eta paseatzerakoan, hurrenez hurren, muga fisikoak dituztenen % 70,3k eta % 60,0k ez du inongo laguntzarik.

Datu hauek Legutioko udalerrian dagoen errealitatearen inguruko pista batzuk ematen dizkigute eta komenigarria litzateke modu zehatzago edo pertsonalizatuago batean aztertzea laguntzarik jasotzen ez dutenen egoera edota beren etxebizitzaren egoera edota antolaketa. Batez ere, eskailerak igotzerakoan, ohera sartu edo ohetik jaikitzerakoan edota bainatzerakoan jende askok dituzten arazoei aurre egiteari begira. Ohikoa den bezala, adineko pertsonen gehiengoak nahiago du bere etxean bizitzen jarraitu, beraz, pertsona horien autonomia maila ahalik eta gehien zaintzea garrantzitsua da.

Egoera fisikoaren balorazio subjektiboak, hau da, galdekatu bakoitzak bere buruari ematen dion balorazioak, emandako datuak oso lotuta daude aurreko emaitzekin. Legutioko 55 urtetik gorako herritarren erdiak baino gehiagok (% 56,5) bere osasun egoera fisikoa ona edo oso ona dela dio. Gogoratu % 66,6k ez duela egunerokoan muga fisikorik nabari. Beste heren batek (% 33,9) bere egoera fisikoa erdipurdikoa dela baloratzen du eta gainerako % 9,6k txarra edo oso txarra.

❖ ELIKADURA ETA MEDIKAMENTUAK

Galdekatutako herritarrek emandako erantzunetan oinarrituz, ez dirudi arazo berezirik dagoenik elikadura aldetik Legutioko 55 urte edo gehiagokoen artean. Otordu kopurua eta elikagai ezberdinen kontsumoa orokorrean egokia da eta inkestatutakoetatik inork ez du adierazi zailtasunik duenik alor honetan. Ia guztiek gutxienez hiru otordu egiten dituzte, horietatik gehienak otordu beroak.

Botikei dagokienez, adineko herritar bakoitzak egunean batez beste 2,7 medikamentu ezberdin hartzen ditu. Medikamenturik hartzen ez dutenen ehunekoa % 32,3koa da. Kontsumitutako botikak zein arazori aurre egiteko diren galdetuta, denetarikoa erantzunak agertu dira. Gehien aipatu direnak, galdekatuen erdiek baino gehiagok esan dute, bihotza eta odolari lotutako arazoak izan dira (kardiobaskular bezala sailkatuak). Ondoren, muskulu edo hezurrei lotutako problemak edota nerbio sistemarekin erlazioa dutenak.

❖ ETXEKIDEAK ETA INGURU SOZIO-AFEKTIBOA

Etxeko kide kopurua eta inguruko pertsonekin duten harreman maiztasuna zenbaterainokoa den ikusita, ondoriozta daiteke Legutioko adineko herritarrek ez direla bakarrik bizi egunerokoan. Horrek ez du esan nahi kasu batzuetan atentzia jarri behar ez denik, bakardade arriskuan egon daitezkeelako.

Hasteko, inkestatuen hiru laurdena (% 74,6) jende gehiagorekin bizi da etxean, horietatik erdia baino gehiago 55 urtetik behera dituen pertsona batekin gutxienez. Gainera, ia denek bizi den pertsonekin gustura daudela adierazi dute.

Etxean bakarrik bizi direnen perfilak badu antzekotasunik lehen aipatutako muga fisikoak dituztenena, hau da, batez ere emakumezkoak 70 urtetik gorakoak eta alargunak dira. Gainera, multzo honen ia laurdenak egoera ekonomiko txarra edo oso txarra duela adierazi du. Egia da, orokorrean, bakarrik bizi direnek inguru sozialarekin harreman estua adierazten dutela, baita herritar talde honek ere, baina hala ere, beren egoera gertutik jarraitzeko beharra azpimarratzen da.

Etxeko kideez gain, inguru sozialarekin harremantzeko joera handia dute herriko 55 urtetik gorako pertsonak. Hiru laurdenak (% 76,2) egunero edo ia egunero du kontaktua bere ingurukoekin. Maiztasunaren arabera familia da erlazio estuena duten taldea (% 51,4 egunero elkartzen da familia kideren batekin). Ondoren, bizilagunak edota lagunak aurkitzen dira.

55 urte edo gehiagoko legutioarren artean bere inguruko inorekin oso gutxi edo batere erlazionatzen ez den oso jende gutxi dago (% 1,7k adierazi du hori). Horietatik inkestatu bakarra da bakarrik bizi dena. Are gehiago, etxean bakarrik bizi direnek beren inguru sozialarekin erlazionatzeko maiztasun handiagoa dutela ikusten da, hamarretik zortzik (% 80,4) egunero edo ia egunero egiten duela adierazi du.

❖ AISIA ETA DENBORA LIBREA

Legutio 55 urtetik gorako pertsonak orokorrean aktiboak dira eta beren denbora librea antolatzeko moduarekin asebeteta agertzen dira. Galdetegia bete duten herritarren hamarretik zazpi baino gehiagok (% 72,4) erregularoki aktibitate fisikoa egiten dutela erantzun dute. Beste multzo handi batek (% 22,4) eguneroko aktibitate normalak egiten dituela dio eta, azkenik, gainerako % 5,2k adierazi du guztiz edo ia guztiz inaktiboa dela bere eguneko jardura. Etxeko kideek edota adinak eragina dute aisiaren antolaketarekiko asebetetze mailan. Etxeko kide kopuruari dagokionez, bakarrik bizi direnen artean asebetetzea handiagoa da jende gehiagorekin bizi direnena baino. Bestetik, adinari dagokionean, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak dira asebetetze txikiena dutenak. Horren azalpen posibleetako bat da adin-tarte horretan kokatzen den jendea, nahiz eta fisikoki egoera hobean egon, oraindik lan-merkatuan dagoela eta bere gustuko aktibitateak egiteko denbora gutxiago duela.

Gustukoenak diren aktibitateak kirola egin edo paseatzea (% 75,1), irakurri edo idaztea (% 33,9) eta baratzean edo lorategian aritzea (% 32,2) dira. Aldiz, pertsona askok aktibitate batzuk egiteko arazoak dituzte arrazoi ezberdinengatik. Normalean ezintasun fisikoak aipatu dituzte muga bezala, bai kirol aktibitateak egiteko, baratza egiteko, etab. Asko dira baita ere inguruan aktibitate hori egiteko aukerarik ez egotea, baliabide ekonomiko edo material falta edota denbora libre falta adierazi dutenak.

❖ LEGUTIOKO UDALAK ADINEKO HERRITARREI ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZUAK

Orokorrean, ez da gabezia garrantzitsurik aipatzen alor honetan eta zerbitzuek balorazio ona jasotzen dute beren erabiltzaileengandik. Hala eta guztiz ere, eskaintzen diren zerbitzuen inguruko informazio falta nabaritzen da herritar batzuen artean eta, bestetik, badago herritar multzo handi bat (% 9,8) dauden zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak dituela adierazi duena. Bi zailtasun nagusi daude, batetik, pertsonak berak dituen mugikortasun arazoak eta bestetik herrietatik Legutioko erdigunera dagoen distantzia eta zerbitzuen 'zentralizazioa'. Garrantzitsua litzateke egoera berezi hauek aztertzea eta zerbitzuak Legutioko adineko herritar guztiengana berdin heltzeko bideak bilatzea. Alor honetan, Udalak zailtasun horien atzean dauden arrazoi posibleak aztertzea komenigarria da, nolabaiteko irtenbide bat emateko helburuarekin. Bestetik, udalerrian bertan ez dauden zerbitzu batzuk bertara ekartzearen eskaera nahiko zabalduta dago. Zerbitzuz zerbitzu begiratuta:

✓ Mediku zerbitzua:

Inkestatu ia guztiek ezagutu eta noizbait erabili dutela adierazi dute, gehienek maiztasun txikiarekin. Batez beste 8,4ko nota eman zaio.

✓ Jubilatuen lokala:

Bigarren zerbitzurik ezagunena (% 91,0k ezagutzen du) eta erabiliena (% 57,4k inoiz erabili du, gehienek maiztasun handiarekin. Oso ondo baloratua dago (8,2ko puntuazioa).

✓ Taxi zerbitzua (Garaigordobil):

Hirugarren zerbitzu ezagunena (% 78,5) nahiz eta jende gutxi erabili duen inoiz (% 7,3). Batez besteko puntuazio ona baita ere, 7,7.

✓ Kirol ekintzak:

55 urtetik gorako herritarren bi herenek (% 66,7) ezagutzen du eta bostetik batek (% 21,5) erabili du inoiz, horietatik askok maiztasun handiarekin. Balorazio onena jasotzen duen zerbitzua da (8,6).

✓ Kultur ekintzak (eskulanak, tailerrak,...):

Kirol ekintzen antzeko ezagutza (% 66,1) eta erabilera du (% 18,2). Halere, hauen erabilera maiztasun txikiagoarekin egiten da kirolena baino. 7,8ko batez besteko balorazioa.

✓ Telealarma:

Legutioko adineko pertsonen erdiak (% 52,0) ezagutzen du eta % 6,8k noizbait erabili duela adierazi du, hauetatik erdiek inkesta egin aurreko egunean bertan. Balorazio oso ona du (8,5).

✓ Etxeko laguntza:

% 41,8k ezagutzen du eta % 6,2k erabili, kasu honetan ere, erdiak baino gehiagok aurreko egunean bertan erabili zuen. 7,2ko balorazioa du erabiltzaileen artean.

✓ Hirugarren adinekoen erresidentzia:

Inkestatuen artean ez da oso ezaguna (% 35,6) eta % 4,5ek erabili du inoiz. 6,2ko batez besteko puntuazioa du, zerbitzu guztietan baxuena.

✓ Menpekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa (Gasteizen):

Galdekatuen % 20,9k du zentro honen berri. % 0,6k noizbait erabili du, maiztasun handiarekin. 7,0ko puntuazioa.

✓ Autonomoak diren pertsonentzako eguneko atentzio zentroa (Zigoitian):

Galdekatuen % 16,4k du zentro honen berri. % 1,1ak noizbait erabili du, maiztasun handiarekin. 6,5eko puntuazioa.

Legutiotik kanpo aurkitzen diren zerbitzu hauek udalerrira ekartzearen inguruan galdetuta, inkestatuen gehiengoak eskaera horrekin bat egiten du, batez ere menpekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroari dagokionez (% 72,3). Nahiz eta gaur egun zentro horren inguruko ezagutza oso txikia den eta erabilera are txikiagoa, udalerrian bertan egongo balitz, behar izanez gero erabiliko luketela adierazi du herritar askok. Eskaera hori egiten dutenen artean denetarik dago, bai zerbitzu hori herrian egonez gero erabiliko luketenak eta baita erabiltzeko asmorik ez dutenak ere. Era berean, erresidentzia Legution izatea eskatzen du inkestatuen % 54,2k eta pertsona autonomoentzako eguneko zentroa % 35,0k.

3. EMAITZAK


3.1. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Sexua

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	92	50,8
Gizonezkoa	89	49,2
Guztira	181	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Legutioko udalerrian galdekatu ditugun 181 herritarretatik % 50,8 emakumezkoak dira eta beste % 49,2 gizonezkoak




Inkestatuen adina

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
55 eta 64 urte bitartean	68	37,8
65 eta 74 urte bitartean	73	40,6
75 urte baino gehiago	39	21,7
Guztira	180	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Adinari dagokionez, inkestatuen % 37,8k 55 eta 64 urte bitartean ditu. Beste % 40,6 65 eta 74 urte bitartekoa da eta gainontzeko % 21,7ak 75 urte baino gehiago ditu




Auzoa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Legutio (erdigunea)	126	69,6
Urrunaga-Nafarrete	19	10,5
Elosua-Ollerieteta	15	8,3
Urbina	14	7,7
Goiaín	7	3,9
Guztira	181	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Inkesta bete duten 55 urtetik gorako herritarren hamarretik zazpi (% 69,6) Legutioko herrigunean bizi da. Gainerako inkestatuak (% 30,4) herrietan bizi dira; Urrunaga-Nafarreten % 10,5; Elosua-Ollerietan % 6,6; Urbinan % 7,7 edota Goiaín % 3,9a.




Egoera zibila

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bikotekidearekin/ ezkondua	117	64,6
Alarguna	33	18,2
Ezkongabea	16	8,8
Banatu/ dibortziatua	15	8,3
Guztira	181	100,0


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Galdetegia erantzun dutenen bi heren (% 64,6) ezkondua edo bikotekidearekin bizi da, % 18,2 alarguna da, % 8,8 ezkongabea eta % 8,3 banandua edo dibortziatua

**Ikasketa maila**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ikasketarik gabea edo lehen mailako ikasketak bukatu gabekoa	27	14,9
Lehen mailako ikasketak	101	55,8
Bigarren mailako ikasketak	35	19,3
Unibertsitate ikasketak	18	9,9
Guztira	181	100,0


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**Egoera ekonomikoa**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ona	3	1,7
Ona	82	45,3
Erdipurdikoa	68	37,6
Txarra	18	9,9
Oso txarra	10	5,5
Guztira	181	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016


Legutioko herrietako 55 urtetik gorako pertsonen egoera ekonomiko subjektiboa orokorrean nahiko negatiboa dela esan genezake. Egoera ekonomiko txarra edo oso txarra dutela adierazi dutenak % 15,4 izan dira eta beste % 37,6k erdipurdikoa esan du.



Etxeko bizikidea

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bakarrrik bizi da	46	25,4
Adinekoak ez diren pertsonekin (ere) bizi da	75	41,4
Adineko pertsona gehiagorekin bizi da	60	33,1
Guztira	181	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



3.2. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGOERA FISIKOA

3.2.1. EGOERA FISIKOAK ERAGINDAKO MUGEN ETA HORIEK GAINDITZEKO JASOTAKO LAGUNTZAREN LABURPENA

Legution, 55 urtetik gorako herritarren artean, eguneroko aktibitateak egiteko zailtasun daude, ohikoa den moduan. Galdetegian aipatu ditugun ekintza guztietan, neurri handiago edo txikiago batean, muga fisikoak dituzte herritar batzuek. Gaur gaurkoz aktibitateak egiteko muga fisikorik ez dutenak asko dira, inkestatutakoen bi heren (% 66,3). Beste % 5,0ek ekintza guztietarako zailtasun fisikoak dituela aipatu du eta gainerako % 28,7k aktibitate batzuetan bakarrik nabaritzen du ezintasuna.

Zailtasun gehien sortzen dituen ekintza 'mahai bat mugitu edo aspiradora pasatzea' da (55 urtetik gorako herritarren % 22,2k ditu zailtasunak). Ondoren daude 'eskailerak igotzea' (% 21,7), 'eguneroko aktibitateak egin: erosketak, medikuarenera joan,...' (% 17,3) edota 'paseatzera joan' (% 16,7arekin).

Muga fisiko hauek dituzten herritar askok laguntzaren bat jasotzen du ekintza hori egin ahal izateko. Laguntza mota ezberdinak jasotzen dituzte: Laguntza boluntarioa (familia-kide batena esaterako) ematea da ohikoena. Bestalde, laguntza hori emateko pertsona bat ordaintzea ere etxe askotan egiten den hautua da. Bukatzeko, laguntza tekniko edo mekanikoa da hirugarren alternatiba posiblea, nahiz eta, ez dagoen hain hedatuta.

Eskailerak igotzerako orduan, esan bezala, % 21,7k muga fisikoak ditu eta horietatik % 70,3k ez dute inolako laguntzarik. Mahai bat mugitu edo aspiradora pasatzeko ere % 51,3k ez du laguntzarik.

	Muga		Laguntza	
	Ez du aktibitate hori egiteko mugarik	Aktibitate hori egiteko mugatuta dago	Nolabaiteko laguntza du	Mugatuta dago + Laguntzarik ez du
A. Mahai bat mugitzerakoan, aspiradora pasatzean,...	77,8	22,2	48,7	51,3
C. Eskailera gutxi batzuk igotzerakoan	78,3	21,7	29,7	70,3
E. Eguneroko aktibitateak egiterakoan (enkarguak egin, medikuarenera joan...)	82,7	17,3	74,2	25,8
B. Paseatzerakoan	83,3	16,7	40,0	60,0
H. Sukaldatzean	89,9	10,1	55,6	44,4
D. Ohera sartu edo ohetik jaikitzerakoan	91,1	8,9	43,8	56,3
F. Jantzerakoan	91,6	8,4	53,3	46,7
G. Bainatzerakoan	93,8	6,2	90,9	9,1

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

3.2.2. EGUNEROKO AKTIBITATEA ZENBATERAINO MUGATZEN DIEN EGOERA FISIKOAK ETA MUGATZEN DIEN KASUETAN LAGUNTZARIK BA OTE DUTEN

A. Mahai bat mugitzerakoan, aspiradora pasatzean,...



	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, asko mugatzen nau	19	10,6
Bai. zertxobait mugatzen nau	21	11,7
Ez, ez nau mugatzen	140	77,8
Guztira	180	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Laguntzarik ez	20	51,3
Pertsona boluntarioa	13	33,3
Pertsona ordaindua	6	15,4
Guztira	39	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



B. Paseatzerakoan



	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, asko mugatzen nau	10	5,6
Bai. zertxobait mugatzen nau	20	11,1
Ez, ez nau mugatzen	150	83,3
Guztira	180	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Laguntzarik ez	18	60,0
Pertsona boluntarioa	5	16,7
Pertsona ordaindua	5	16,7
Laguntza mekanikoa	2	6,7
Guztira	30	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



C. Eskailera gutxi batzuk igotzerakoan



	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, asko mugatzen nau	11	6,1
Bai. zertxobait mugatzen nau	28	15,6
Ez, ez nau mugatzen	141	78,3
Guztira	180	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Laguntzarik ez	26	70,3
Pertsona boluntarioa	4	10,8
Pertsona ordaindua	3	8,1
Laguntza mekanikoa	4	10,8
Guztira	37	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**D. Ohera sartu edo ohetik jaikitzerakoan**



	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, asko mugatzen nau	6	3,4
Bai. zertxobait mugatzen nau	10	5,6
Ez, ez nau mugatzen	163	91,1
Guztira	179	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Laguntzarik ez	9	56,3
Pertsona boluntarioa	2	12,5
Pertsona ordaindua	4	25,0
Laguntza mekanikoa	1	6,3
Guztira	16	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



E. Eguneroko aktibitateak egiterakoan (enkarquak egin, medikuarenera joan...)



	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, asko mugatzen nau	13	7,3
Bai. zertxobait mugatzen nau	18	10,1
Ez, ez nau mugatzen	148	82,7
Guztira	179	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Laguntzarik ez	8	25,8
Pertsona boluntarioa	18	58,1
Pertsona ordaindua	5	16,1
Guztira	31	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



F. Janzterakoan



	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, asko mugatzen nau	6	3,4
Bai. zertxobait mugatzen nau	9	5,0
Ez, ez nau mugatzen	164	91,6
Guztira	179	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Laguntzarik ez	7	46,7
Pertsona boluntarioa	5	33,3
Pertsona ordaindua	3	20,0
Guztira	15	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



G. Bainatzerakoan



	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, asko mugatzen nau	5	2,8
Bai. zertxobait mugatzen nau	6	3,4
Ez, ez nau mugatzen	167	93,8
Guztira	178	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Laguntzarik ez	1	9,1
Pertsona boluntarioa	4	36,4
Pertsona ordaindua	5	45,5
Laguntza mekanikoa	1	9,1
Guztira	11	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**H. Sukaldatzean**



	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, asko mugatzen nau	7	3,9
Bai. zertxobait mugatzen nau	11	6,2
Ez, ez nau mugatzen	160	89,9
Guztira	178	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

Aktibitate hori egiteko jasotzen duen laguntza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Laguntzarik ez	8	44,4
Pertsona boluntarioa	6	33,3
Pertsona ordaindua	4	22,2
Guztira	18	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




3.2.3. LEGUTIOKO ADINEKO HERRITARREN MULTZOKATZEA BERE EGOERA FISIKOAK SORTZEN DIZKIEN MUGEN ARABERA

Egoera fisikoa eta mugak

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bere fisikoak ez du mugatzen	120	66,3
Bere fisikoak ekintza batzuetarako bakarrik mugatzen du	52	28,7
Bere fisikoak ekintza guztietarako mugatzen du	9	5,0
Guztira	181	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



3.2.4. EGUNEROKO AKTIBITATE GUZTIETARAKO MUGAK DITUZTEN HERRITARRAK, ALDAGAI EZBERDINEN ARABERA (SEXUA, ADINA, ETXEKO KIDEAK, EGOERA ZIBILA ETA EGOERA EKONOMIKOA)

Lehenago aipatu moduan, 55 urtetik gorako Legutioko herritarren artean % 5,0k eguneroko aktibitate bakoitza aurrera eramateko garaian laguntza behar du. Multzo horrek ezaugarri batzuk ditu eta ez da berdina banatzen sexu, adin, egoera zibil, ekonomiko edota etxean bizi diren kide kopuruaren arabera.


Sexuaren arabera, emakumezkoak dira hiru laurdena baino gehiago (% 77,8). Adinaren arabera aztertzen badugu, multzo honetako bi herenek 75 urte edo gehiago dituzte.

Egoera zibilar dagokionez, laguntza osoa behar dutenen artean alargunak dira % 44,4 eta beste hainbeste ezkondua edo bikotekidearekin bizi direnak (nahiz eta hauek berez % 64 diren inkestatuen artean). Eta bukatzeko, multzo honetan kokatzen diren adineko pertsonen ia hamarretik zortzi (% 77,8) egoera ekonomiko txarra edo erdipurdikoan bizi dira.

Sexua

	Inkestatu guztiak	Aktibitate guztietarako mugatutakoak
Emakumezkoa	50,8	77,8
Gizonezkoa	49,2	22,2
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	9


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Adina


	Inkestatu guztiak	Aktibitate guztietarako mugatutakoak
55 eta 64 urte bitartean	37,8	22,2
65 eta 74 urte bitartean	40,6	11,1
75 urte baino gehiago	21,7	66,7
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	180	9

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**Egoera zibila**

	Inkestatu guztiak	Aktibitate guztietarako mugatutakoak
Bikotekidearekin/ ezkondua	64,6	44,4
Alarguna	18,2	44,4
Ezkongabea	8,8	11,1
Banatua/ dibortziatua	8,3	,0
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	9


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Egoera ekonomikoa


	Inkestatu guztiak	Aktibitate guztietarako mugatutakoak
Oso ona	1,7	,0
Ona	45,3	22,2
Erdipurdikoa	37,6	66,7
Txarra	9,9	,0
Oso txarra	5,5	11,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	9

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**Bizikidea**

	Inkestatu guztiak	Aktibitate guztietarako mugatutakoak
Bakarrik bizi da	25,4	33,3
Beste pertsona batekin bizi da	41,4	44,4
Hiru pertsona edo gehiago bizi dira	33,1	22,2
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	9

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




3.2.5. EGOERA FISIKOAREN BALORAZIO SUBJEKTIBOA

Zure osasun egoera fisikoa nolakoa dela iruditzen zaizu? Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ona	19	10,7
Ona	81	45,8
Erdipurdikoa	60	33,9
Txarra	15	8,5
Oso txarra	2	1,1
Guztira	177	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Egoera fisikoaren balorazio subjektiboa, hau da, galdekatu bakoitzak bere buruari ematen dion balorazioa, orokorrean nahiko ona dela esan genezake. 55 urtetik gorako herritarren ia hamarretik seik (% 56,5) bere osasun egoera fisikoa ona edo oso ona dela dio. Beste heren batek (% 33,9) erdipurdikoa dela baloratzen du eta gainerako % 9,6ak txarra edo oso txarra.

3.2.6. BOTIKA EDO MEDIKAMENTUAK KONTSUMITZEKO JOERA LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO PERTSONEN ARTEAN

Egunean zenbat botika ezberdin kontsumitzen dituzten eta batez bestekoa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
0 botika	55	32,3
1 eta 2 botika artean	47	27,7
3 eta 4 botika artean	42	24,7
6 eta 10 botika artean	19	11,1
11 botika edo gehiago	7	4,2
Batez bestekoa	2,7	

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Medikamentuen alorrean sartuta, puntu positibo moduan, inkestatuen hamarretik hiruk (% 32,3) ez du medikamentu bat bera ere hartzen. Batez beste, Legutioko 55 urtez gaineko herritar batek 2,7 medikamentu ezberdin kontsumitzen ditu egunean.

Kontsumitutako botikak zein motatakoak diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Kardiobaskularrak (bihotza, tentsioa, odola, kolesterola...) (sintron,...)	96	54,2
Muskuluei eta eskeletoari lotuak (hezurrak, juntak, artikulazioak, minak...)	40	22,6
Nerbio sistemari lotuak (tristurarentzat, lo egitekoak, nerbiotarako, antsiolitikoak...)	36	20,3
Gernu sistema / sistema urinarioa (prostata arazoak, pixa egiteko...)	17	9,6
Bestelakoak	20	11,3

Oharra: Erantzun bat baino gehiago eman zitekeen galdera honetan

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Medikamentu motaren arabera begiratzuz gero, ikusiko dugu nola inkestatutako herritarren erdiak baino gehiagok (% 54,2) arazo edo gaixotasun kardiobaskularrekin lotutako botikak hartzen dituela. Bestetik, galdetegia bete dutenen % 22,6k muskulu edo hezurrei lotutako arazoentzako botikak kontsumitzen ditu, % 20,3k nerbio sistemarekin lotuak, % 9,6k gernu sistemari lotutakoak eta % 11,3k gainontzeko gaixotasunekin lotutako botikak.

3.2.7. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN ELIKADURA

Egunean zehar egiten dituzten otordu kopurua

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Otordu 1	1	,6
2 otordu	5	2,8
3 otordu	88	49,7
4 otordu	53	29,9
5 otordu	30	16,9
Guztira	177	100,0
Batez bestekoa	3,6	


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Egunean zehar egiten dituzten otordu bero kopurua

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Otordu 1	2	1,1
2 otordu	27	15,3
3 otordu	129	72,9
4 otordu	16	9,0
5 otordu	3	1,7
Guztira	177	100,0
Batez bestekoa	2,9	


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Astean zehar elikagai ezberdinak jateko ohitura

	Batez bestekoa
Fruta	6,7
Ogia	6,7
Esnekiak	6,2
Barazkia	5,1
Haragia	2,9
Arraia	2,8

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




3.3. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGUNGO ETXEBIZITZA, ETXEKIDEAK ETA ZIRKULU SOZIO-AFEKTIBOA

3.3.1. GAUR EGUN ETXEAN BIZI DIREN PERTSONEN INGURUAN

Etxean zenbat pertsona bizi diren eta batez bestekoa

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bakarrik bizi da	46	25,4
Beste pertsona batekin bizi da	78	43,1
Hiru pertsona edo gehiago bizi dira	57	31,5
Guztira	181	100,0
Batez bestekoa	2,3	


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Legutioko 55 urtetik gorako pertsonen multzokatzea bere etxeko egituraren arabera

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bakarrik bizi da	46	25,4
Adinekoak ez diren pertsonekin (ere) bizi da	75	41,4
Adineko pertsona gehiagorekin bizi da	60	33,1
Guztira	181	100,0


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Gaur egun etxean bizi den pertsonekin gustura dagoen

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Gustura dago	165	94,3
Ez dago gustura	10	5,7
Guztira	175	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Legutioko 55 urtetik gorako herritar ia guztiak (% 94,3) gustura daude egun bizi diren pertsonekin bizitzen. Gainerako % 5,7a ez dago gustura.

EGUNGO ETXEBIZITZAN GUSTURA EZ DAUDENEN ARRAZOIAK

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bikote edo senar/emaztearekin	4	44,4
Osasun zaintzako profesionalekin	2	22,2
Familiarekin	1	11,1
Jende gehiagorekin orokorrean	1	11,1
Besterik	1	11,1
Guztira	9	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Azken multzo honen barruan arrazoi nagusia da bikote edo senar/emaztearekin bizi nahi izatea (% 44) edota osasun zaintza eskainiko dioten profesionalekin bizi nahi izatea (% 22,2).


3.3.2. ETXEAN BAKARRIK BIZI DIREN 55 URTETIK GORAKO HERRITARRAK, HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA (SEXUA, ADINA, AUZOA, EGOERA ZIBILA ETA EGOERA EKONOMIKOA)

Etxean bakarrik bizi diren herritarren perfila batez ere emakumezkoa da (% 58,7), alarguna (% 50) eta adinean geroz eta zaharrago, ehunekoa handitzen joan ohi da, hau da, bakarrik bizi direnen hamarretik lauk (% 39,1) 75 urte baino gehiago ditu. Bestalde, bakarrik bizi diren herritarrak egoera ekonomiko kaskarragoan bizi ohi dira (% 23,9k dio bere egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela)

Sexua

	Inkestatu guztiak	Etxean bakarrik bizi direnak
Emakumezkoa	50,8	58,7
Gizonezkoa	49,2	41,3
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	46


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Adina

	Inkestatu guztiak	Etxean bakarrik bizi direnak
55 eta 64 urte bitartean	37,8	26,1
65 eta 74 urte bitartean	40,6	34,8
75 urte baino gehiago	21,7	39,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	180	46


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Auzoa


	Ehunekoa (%)	Etxean bakarrik bizi direnak
Legutio (erdigunea)	69,6	69,6
Elosua-Ollerietea	8,3	8,7
Goiain	3,9	
Urbina	7,7	6,5
Urrunaga-Nafarrete	10,5	15,2
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	46

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016

**Egoera zibila**

	Inkestatu guztiak	Etxean bakarrik bizi direnak
Alarguna	18,2	50,0
Ezkongabea	8,8	26,1
Banatua/dibortziatua	8,3	19,6
Bikotekidearekin/ezkondua	64,6	4,3
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	46


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Egoera ekonomikoa

	Inkestatu guztiak	Etxean bakarrik bizi direnak
Oso ona	1,7	,0
Ona	45,3	28,3
Erdipurdikoa	37,6	47,8
Txarra	9,9	13,0
Oso txarra	5,5	10,9
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	46

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



3.3.3. JENDE GEHIAGOREKIN ERLAZIONATZEKO OHITURAREN INGURUAN


Orokorrean, Legutioko 55 urtetik gorako hiru laurden (% 76,2) egunero edo ia egunero erlazionatzen dira bere inguru sozialarekin. Gehienbat familiarekin egunerokotasunean elkartzeko joera dute (% 51,4 egunero edo ia egunero egoten omen da). Auzokideekin elkartzeko maiztasuna daukagu bigarren postuan (inkestatuen % 47,0 egunero edo ia egunero erlazionatzen da bizilagunekin) eta oso antzeko kopuruan lagunak aurkitzen dira. Bukatzeko, zerbitzu sozialekin edo medikuarekin maiztasun gutxiagorekin egon ohi dira (% 76,7 eta % 87,3 oso noizbehinka edo inoiz ez dira egoten, hurrenez hurren).

55 urte edo gehiagoko legutioarren artean bere inguruko inorekin oso gutxi edo batere erlazionatzen ez den oso jende gutxi dago (% 1,7k adierazi du hori).

Zein maiztasunez erlazionatzen den jende gehiagorekin

	Egunero edo ia egunero	Astean 2-3 aldiz	Astean behin	Noizbehinka edo ia inoiz ez	Ez daki/erantzunik ez	Guztira	Indizea (100 / 0)	Oinarria (n)
Familia	51,4	14,4	21,0	13,3	,0	100,0	60,0	181
Bizilagunak	47,0	15,5	9,9	24,3	3,3	100,0	54,7	181
Lagunak	40,9	20,4	18,8	18,8	1,1	100,0	51,5	181
Medikua	1,7	1,1	6,1	87,3	3,9	100,0	5,8	181
Zerbitzu sozialak	2,2	1,1	2,2	76,7	17,8	100,0	5,5	181


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Legutioko 55 urtetik gorako pertsonen multzokatzea asteen zehar jende gehiagorekin erlazionatzeko maiztasunaren arabera

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Egunero edo ia egunero kontaktua du pertsona gehiagorekin	138	76,2
Astean bizpahiru aldiz kontaktua du pertsona gehiagorekin	40	22,1
Inoiz ez edo oso noizbehinka du kontaktua pertsona gehiagorekin	3	1,7
Guztira	181	100,0


Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Etxean bakarrik bizi direnak zein maiztasunekin erlazionatzen diren jende gehiagorekin

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Egunero edo ia egunero kontaktua du pertsona gehiagorekin	37	80,4
Astean bizpahiru aldiz kontaktua du pertsona gehiagorekin	8	17,4
Inoiz ez edo oso noizbehinka du kontaktua pertsona gehiagorekin	1	2,2
Guztira	46	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Gurutzatzen baditugu 'etxean bakarrik bizi direnak' eta 'inguru sozialarekin erlazionatzeko maiztasuna' ikusten da nola bakarrik bizi diren Legutioko 55 urtetik gorako herritar gehienak (% 80,4) egunero edo ia egunero erlazionatzen direla bere familia, bizilagun edota lagunekin. Eta gainerako % 17,4 ere astean bizpahiru aldiz egoten da bere inguruarekin. Inkestatu guztien artean % 2,2 da bakarrik bizi eta ingurukoekin erlazionatu gabe bizi dena.

3.3.4. GAUR EGUN BIZI DEN ETXEBIZITZA

Gaur egungo etxebizitzan bizitzen jarraitu nahi al duen

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, jarraitu nahi du	163	93,1
Ez, ez du jarraitu nahi	12	6,9
Guztira	175	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016




Egun bizi diren etxebizitzaz galdetuta, inkestatuen gehiengo handi batek (% 93,1) bertan bizitzen jarraitu nahi duela adierazi du. Gainerako % 6,9k aldatu nahiko luke.

Jarraitu nahi ez dutenen arrazoiak

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Etxebizitzak sortzen dizkion arazoengatik	6	50,0
Seme-alabengadik gertu egoteko	1	8,3
Familia edo lagunetatik gertu egoteko	1	8,3
Beste	4	33,3
Guztira	12	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



Etxebizitza aldatuko lukeela esan dutenen (% 3,2) gehiengoaren arrazoia da beren etxebizitzak sortzen dizkien arazoengatik aldatu nahi dutela bizilekuz (urruntasuna, hotza, handiegia da, txikiegia da, mugikortasun arazoak...).


3.4. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN AISIA ETA DENBORA LIBREA

3.4.1. LEGUTIOKO 55 URTETIK GORAKO HERRITARREN EGUNEROKO AKTIBITATE MAILA

Eguneroko aktibitate maila nolako den

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aktibitate fisikoa	126	72,4
Etxeko aktibitate normala	39	22,4
Gutziz edo ia guztiz inaktibo	9	5,2
Guztira	174	100,0

Iturria: Aztiker, "Legutioko 55 urtetik gorako herritarren egoera, iritzia eta beharrak" inkesta, 2016



